3. Ikastetxeei beren funtzionamendurako baliabide materialak ematea. Ikastetxe kopurua.		3. Dotar a los centros de los recursos materiales para su funcionamiento. Número de centros.
1. Ikastetxe kopurua.	336	1. Número de Centros.
8. TITULARTASUN PRIBATUA DUTEN 0-3 URTE BITARTEKO HAUR-ESKOLAK FINANTZATZEA		8. FINANCIACIÓN DE ESCUELAS INFANTILES DE 0-3 AÑOS DE TITULARIDAD PRIVADA
1. Ikastetxe kopurua.	277	1. Número de centros.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Ikasle kopurua.	12.438	2. Número de alumnos y alumnas.
9.- KANPO EBALUAZIOAK EGITEA (ISEI_IVEI)		9. REALIZACIÓN DE EVALUACIONES EXTERNAS (ISEI_IVEI)
1. LHko 4. Mailako diagnostiko ebaluazioa. Ikasle kopurua.	20.000	1. Evaluación diagnóstica 4. de Primaria. Número de alumnos y alumnas.
2. Etapa amaierako diagnostiko ebaluazioaren lagina (LH 6. Maila). Ikasle kopurua.	3.000	2 Muestra evaluación diagnóstica final etapa, en 6. de Primaria. Número de alumnos y alumnas.

PROGRAMA	PROGRAMA
4222 BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA	4222 EDUCACIÓN SECUNDARIA Y FORMACIÓN PROFESIONAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>07 HEZKUNTZA</u>	<u>07 EDUCACIÓN</u>
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARITZA, HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA, IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA, PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA ZUZENDARITZA, ETA TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE GESTIÓN ECONÓMICA, DIRECCIÓN DE INNOVACIÓN EDUCATIVA, DIRECCIÓN DE CENTROS Y PLANIFICACIÓN, DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y ORGANIZACIÓN, DIRECCIÓN DE TECNOLOGÍA Y APRENDIZAJES AVANZADOS

MEMORIA

Honako hauek dira programa honetan garatzen diren jardueren xede orokorrak:

- 12-18 urte bitarteko biztanleriaren eskolatzea, hala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, nola Lanbide Heziketan, horrela, ahalik eta eskola-uzte tasarik baxuena lortzeko.
- Gaitasunen garapenean eta beren testuinguru geografikoan, sozioekonomikoan eta kulturean sustraitutako jakintzak edo jakintza unibertsalak bereganatzean laguntzea, horrela irteera-profila lor dezaten. Horrek goi-mailako ikasketak egiten jarraitzeko aukera emango die, bai eta lan-bizitza aktibora sartzeko ere.
- Nerabeei beren autonomia pertsonala eta beren ikasketak eta erantzukizunak finkatzeko hezkuntza-erantzun koherente eta egokia ematea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleen kasuan, curriculuma ikasgaika antolatzeak ez du kaltetzen etaparen diziplina-artekotasuna, ez eta oinarritzko gaitasunak garatzea ere.

Batxilergoan hiru modalitate bereizten dira, eta bakoitzak bere ibilbideak ditu eta ikasgaien arabera antolatuta dago. Behin derrigorrezko hezkuntza gaindituta bide hori hautatzen duten ikasleek bizitzako hainbat arlotan ematen diren egoerak gainditzeko ezagutzetan sakonduko dute, eta goi-mailako ikasketetan edo lan-merkatuan sartzeko prestatuko dira.

Las actividades que se desarrollan en este programa persiguen los siguientes objetivos generales.

- La escolarización de toda la población en el tramo 12-18 tanto en la Educación Secundaria Obligatoria como en el Bachillerato o Formación Profesional, logrando la menor tasa de abandono posible.
- Contribuir al desarrollo de competencias y a la adquisición de conocimientos tanto universales como enraizados en su contexto geográfico, socioeconómico y cultural para alcanzar el perfil mínimo de salida de manera que posibilite proseguir estudios superiores así como la incorporación a la vida activa.
- Ofrecer una respuesta educativa coherente y adecuada a las y los adolescentes para desarrollar y consolidar su autonomía personal, sus estudios y sus responsabilidades.

Para el alumnado que cursa la Educación Secundaria Obligatoria, la organización del currículo en materias se entiende sin perjuicio del carácter interdisciplinar de la etapa y de su contribución al desarrollo de las competencias básicas.

El Bachillerato se desarrolla en tres modalidades que incluyen, en su caso, itinerarios y se organiza también en materias. El alumnado, que superada la educación obligatoria opta por esta vía, profundizará en los conocimientos para resolver situaciones de los distintos ámbitos de la vida y se preparará para su incorporación a estudios superiores o a su inserción laboral.

Bai Oinarrizko Hezkuntza bukatzean, bai Batxilergoan zehar, ezinbestekoa da ikasleak modu aktiboan inplikatzeko jakintza bilatzen, ikasten, esperimendatzen, hausnartzen, aplikatzen eta jakintza komunikatzen.

Hainbat jarduera-eremutan garatzen dira ekintzak.

Aurrerapausoa eman da zientziarekiko interesa bultzatuzetik, berriki aurkeztutako Estrategiak definitzen duen STEAM kontzeptura. Estrategia horrek diziplina-arteak ikuspegia hartzea ahalbidetzen du, zientzien, teknologiaren, ingeniariaren, artearen eta matematikaren artekoak. Horrez gain, ekintzailtza-kultura sustatzen du, eta ikasleei ekintzailtza-programa espezifikotik parte hartzea ahalbidetzen die.

Ikastetxeetan STEAM-proiektuak egitea sustatzeko, tresna digital bat aurkeztu da (Steamgunea), irakasleei esparru horretan laguntzeko.

Estetikarekiko eta adierazpen artistikorekiko gustua sustatzen da; izan ere, pentsamendu sortzailea eta sentimenduak garatzen laguntzen dute, eta baita lorpen artistikoei lotutako diziplina indartu ere.

Teknologiaren arloan, Oinarrizko Hezkuntza bukatzen duten ikasleek beren alfabetatze osoa edo trebakuntza funtzionala bermatzen duen konpetentzia digital maila izan behar dute; horregatik da beharrezkoa, hain zuzen, IKTen erabilera arlo guztietara zabaltzea. (Sare Hezkuntza eta IKT Heldutasun-profila deialdia).

Ikasleek bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean ahozko eta idatzizko ulermen- eta adierazpen-gaitasun errealek izatea lortu behar da. Hizkuntza-planeko irakurketa-planean jasotzen dira irakurtzeko ohitura bultzatzea eta solasaldi eta eztabaidetarako espazioa hizkuntzen trataera integratua eta integralaren esparruan.

Euskara ardatz duen hezkuntza eleaniztuna sustatzen da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan zehar, irteera-profilean eskainitako proposamenetara sartzeko euskara-maila egokia lortu behar da.

Maila hori erdiesten ez duten ikasleen kasuan, proposatutako didaktikan eta metodologian eragina duten erabakiak planteatu behar dira. Horrenbestez, esperientzia pilotuak bultzatuko dira euskaraz adierazteko eta irakurritakoa ulertzeko gaitasunak hobetzeko, IRALEko eta zonako Berritzeguneetako langileen baterako esku-hartzeari lotuta. Halaber, ikasleen lanak Irakurguneko berriazko atalaren bitartez ezagutarazteko jardunaldiak sustatuko dira.

Tanto al culminar la educación Básica como durante el Bachillerato, es fundamental la implicación activa del estudiante en procesos de búsqueda, estudio, experimentación, reflexión, aplicación y comunicación del conocimiento.

Se desarrollan acciones en diferentes ámbitos de actuación.

Se produce un avance desde promover el interés por la ciencia, hacia el concepto STEAM definido en la Estrategia presentada recientemente. Una estrategia que permite el enfoque interdisciplinar entre las ciencias, la tecnología, la ingeniería, el arte y las matemáticas y que fomenta la cultura emprendedora ofreciendo al alumnado la posibilidad de participar en programas específicos de emprendizaje.

Para promover la elaboración de proyectos STEAM en los centros educativos, se presenta una herramienta digital (Steamgunea) de ayuda para el profesorado en este ámbito.

Se promueve el gusto por lo estético y las manifestaciones artísticas, ya que desarrollan el pensamiento creativo y los sentimientos, además de reforzar la disciplina asociada al esfuerzo del logro artístico.

En el ámbito de la tecnología, el alumnado que concluya la Educación Básica debe alcanzar el nivel de competencia digital que garantice su plena alfabetización o capacitación funcional, por lo que es preciso generalizar el uso de las TIC en todas las materias (Convocatoria Sare Hezkuntza y Perfil de Madurez TIC).

Debe lograrse la competencia real del alumnado en las destrezas de comprensión y expresión oral y escrita en las dos lenguas oficiales y en al menos una lengua extranjera. El impulso del hábito lector, así como los espacios para tertulias o debates quedan planteados desde el Plan lector del centro, ubicado en el Plan lingüístico, en el marco del tratamiento integrado e integral de las lenguas.

Se impulsa la educación plurilingüe con el euskera como eje. Durante la etapa de la Educación Secundaria Obligatoria debe lograrse un nivel de euskera adecuado para acceder a las propuestas formuladas en el perfil de salida.

La intervención con el alumnado que no logra ese nivel, debe plantearse con decisiones que afectan tanto a la didáctica como a la metodología propuesta. Por esta razón, se van a impulsar experiencias piloto para mejorar la comprensión lectora y expresión en euskera promovidas desde la intervención conjunta del personal de IRALE y de los Berritzegunes zonales. Asimismo, se promueven jornadas para la difusión de las producciones realizadas por el alumnado en el apartado que Irakurgunea tiene previsto para ello.

Atzerriko hizkuntzan emandako ikasgaiak gehituko dira, bai eta ikasleek beren ikasketak sendotu ahal izateko aukerak ere, horretarako atzerriko hizkuntzan prestakuntza jasotzeko egonaldietarako deialdiak antolatuz.

Beldur eszenikoa gainditzea ezinbestekoa da jendaurrean behar bezala hitz egiteko. Poesia, antzerkia, lanak ahoz aurkeztea, kontzertuak, koreografiak edo jardunaldi bereziak antolatzea, besteak beste, indartu beharreko aukerak dira.

Arriskuak eta akatsak sare horren parte dira, eta ekintzailatza sustatzeko eta autoestimua eta kooperazioa aberasteko duten balioa aitortu behar zaie.

2019-2022 aldian eskola inklusiboa garatzeko esparru-planean jasota dauden hezkuntza-laguntzako berriazko premiei emango zaien erantzuna sartu da ekitatea bermatu eta bikaintasuna sustatzeko urteko aurrekontuan.

Lehentasuneko da etapa horretako xedeak lortzen ez dituzten 12-16 urte bitarteko ikasleei arreta ematea eskola-uzteak ekiditeko; horregatik, euskal hezkuntza-sistema indartu egiten da mota horretako zailtasunei aurre egiteko, honako hauen bitartez:

a. Harrerako faseko hizkuntza-indargarriak eskaintzea heldu berri diren ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren esparruan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleentzako, esperientzia piloto gisa, EUSLE gelak sortzea sustatzen da, horrela eskola inklusiboaren esparruan oinarritzeko eta zeharkako gaitasunak behar bezala ikasteko prozesua erraztuko duten hizkuntza-gaitasuna eta gaitasun komunikatiboa garatzea sustatzeko.

b. Laguntza eta errefortzu programak, eta eskola uzte goiztiarra murrizteko aniztasunari arreta emateko neurriak bultzatzea (HBSP, BIDELAGUNA Curriculum aniztasuna, eskolatzeko-programa osagarriak, bakarrik dauden ikasle adingabe atzerritarak).

c. Ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-ikastetxeetan eskolatzeko, dagokien eskola-ingurunean eta ohiko ikastetxeetan behar duten arreta jaso ezin duten ikasleentzat.

d. Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleei arreta ematea.

e. Hamaika Esku programa garatzea hezkuntza-gabeziak eta gabezi sozioekonomikoak dituzten ikasleei horiek gainditzeko bitartekoak emateko; horrela, oinarritzeko gaitasunak garatu eta beren gaitasunei buruz dituzten usteak hobetuko dira.

Se incorporan materias impartidas en lengua extranjera, además de oportunidades para que el alumnado pueda reforzar su aprendizaje mediante la convocatoria de estancias para la formación en lengua extranjera.

La superación del miedo escénico es una cualidad básica para intervenir adecuadamente ante un público. Los versos, el teatro y la presentación de trabajos, o los conciertos, las coreografías, o la organización de jornadas especiales constituyen algunas de las oportunidades que deben intensificarse.

Los riesgos y los errores forman parte de este entramado y deben atribuirse el valor que encierran para favorecer el emprendizaje y enriquecer la autoestima y la cooperación.

La respuesta a las necesidades específicas de apoyo educativo contempladas en el Plan marco para el desarrollo de una escuela inclusiva 2019-2022 está prevista en el presupuesto anual para garantizar la equidad y fomentar la excelencia.

La atención al alumnado que en el tramo 12-16 no supera los objetivos de la etapa es prioritaria para evitar el abandono escolar, por lo que el sistema educativo vasco se esfuerza para superar este tipo de dificultades mediante:

a. Los refuerzos lingüísticos de acogida al alumnado de reciente incorporación en el marco del desarrollo del II Plan de atención educativa al alumnado inmigrante. Se promueve la creación de aulas EUSLE como experiencia piloto, dirigida al alumnado de 1. y 2. de Educación Secundaria Obligatoria, para favorecer el desarrollo de competencias lingüísticas y comunicativas que faciliten el proceso de aprendizaje, y el adecuado logro de las competencias básicas y transversales en el marco de la escuela inclusiva e intercultural.

b. Programas de apoyo y refuerzo, e impulso de medidas de atención a la diversidad destinadas a reducir el abandono escolar prematuro (PREE, BIDELAGUNA, Diversificación curricular, Programas complementarios de escolarización, Programas específicos de atención al alumnado MENA).

c. Escolarización en Centros Territoriales para la Atención Educativa Hospitalaria, Domiciliaria y Terapéutico-Educativa, para el alumnado que no puede ser atendido en el entorno escolar correspondiente, ni en los centros educativos ordinarios.

d. La atención al alumnado con altas capacidades intelectuales.

e. El desarrollo del programa Hamaika Esku para proporcionar a los alumnos y alumnas que presenten carencias educativas y socioeconómicas, los medios para superarlas favoreciendo el desarrollo de competencias básicas y mejorando las expectativas sobre sus propias capacidades.

Halaber, ikastetxe bakoitzeko egoeraren analisi sakona egitea (soziala, linguistikoa, kulturala eta akademikoa), ikastetxeen Hezkuntza Beharren Indizea (HBI) sortuz, ikastetxeek dagozkien giza baliabide gehiago jasoz aipaturako anistasuna atenditzeko.

Era berean, hezkuntza-eragileek erantzukidetasunean oinarritutako esperientziak izatea sustatu da, besteak beste, Zorrotzako proiektu soziedukatioarekin.

Gainera, Magnet-erakarri proiektuak garatzeko proposamenak egin dira.

f.- Hauspoa proiektuak. Proiektu horien helburua da gaur egun indarrean dagoen esparrua malgutzea, ikastetxeetako hezkuntza-jarduerak eta eskoladenborak berrantolatzen laguntzeko, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta ikasle guztien hezkuntza-arrakasta sustatzeko.

g. 14 urtetik gorako hezkuntza-sistemako ikasle berrientzako ikastetxeetan eskolatzeko-formula osagarrietan oinarritutako ekimen pilotuak.

Horrenbestez, Prestakuntzako Ekimen Globalak derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publiko guztietan ezarriko dira, aniztasuna lantzerako bideratutako metodologia aktibo eta kolaboratiboak bultzatzeko.

Bizikidetzaren positiboa da ikasleek zeharkako konpetentziak garatzen diren esparru nagusia, era integralean landu behar diren aniztasun-alderdietan. Horretarako, abian jarri da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan elkarbizitza positiborako eta eskola-jazarpen kasuen prebentzio eta kudeaketarako Bizikasi Ekimena.

Horrela izanik, ikasleek nortasuna eraikitzea eta beren autonomia sustatzera, besteekin eta ingurune sozial eta naturalarekin harremanak sortzera eta estereotiporik zein generoarekin araberako rolik gabeko garapen integrala lortzera zuzendutako baliabideak garatzea planteatzen da. Alderdi horri dagokionez, EAEko hezkuntza-sisteman hezkidetzaren ezartzeko II. Plana aurkeztu da, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023).

Eskola inklusiboa indartu eta aberastu egiten da kulturartekotasunarekin eta aniztasunarekin orokorrean. Gaitortzeak errespetatzea eta haiekin eta haiengandik ikasteak autonomia eta taldearen hazkundea indartzen du; izan ere, taldeak irekia izan behar du aldaketan aurrean, eta aldaketa horiek aukeratzat hartu.

Aniztasunarekiko errespetua eta aniztasuna baloratzeak eskola inklusiboaren garapenera darama. Eskola inklusibo horretan, bakoitzak bere gaitasunen maximoa eskuratu behar du.

Al mismo tiempo, el análisis profundo de la realidad social, lingüística, cultural y académica de cada centro para determinar el Índice de Necesidades Educativas del centro (INE), en función del cual los centros cuentan con más medios para atender a esa diversidad.

Igualmente, se fomentan experiencias basadas en la corresponsabilidad de los distintos agentes educativos a través de proyectos socioeducativos como es el caso del de Zorroza.

Además, se han realizado propuestas para el desarrollo de los proyectos Magnet-erakarri.

f. Proyectos HAUSPOA, cuyo objetivo es la flexibilización del marco actualmente vigente para facilitar la reorganización de las actividades educativas y de los tiempos escolares de los centros en aras de mejorar la calidad de la enseñanza para fomentar el éxito educativo de todo el alumnado.

g. Iniciativas piloto basadas en fórmulas de escolarización complementaria en centros de educación para adultos, para alumnado mayor de 14 años de nueva incorporación al sistema educativo.

Para todo lo expuesto, la Iniciativa Global de Formación se ha previsto en todos los centros públicos de educación obligatoria, para impulsar metodologías activas y colaborativas que den respuesta a esta diversidad.

La convivencia positiva es el marco en el que prioritariamente se desarrollan las competencias transversales del alumnado en todos aquellos ámbitos vinculados a la diversidad, que deben abordarse de forma integral. Para ello, se ha puesto en marcha la Iniciativa Bizikasi para la convivencia positiva y la prevención y gestión de los casos de acoso escolar en los centros públicos de Enseñanza Secundaria obligatoria.

Así, se plantea el desarrollo de valores dirigidos a construir la personalidad y fomentar la autonomía de los alumnos y alumnas, generar relaciones con los demás y con el medio natural y social, y conseguir el desarrollo integral al margen de estereotipos y roles en función del género. Respecto a este último aspecto, se ha presentado el II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco en el camino hacia la igualdad y el buen trato 2019-2023.

La escuela inclusiva se refuerza y enriquece con la interculturalidad y la diversidad en general. Respetar y aprender de y con los demás refuerza la autonomía y el crecimiento del grupo, que debe ser abierto a los cambios y afrontarlos como oportunidades.

El respeto y el valor de la diversidad conducen al desarrollo de una escuela inclusiva en el que cada persona debe lograr el máximo de sus capacidades.

Etapa horretan, familia da balioetan heztearen oinarria, eta balio horiek ikastetxean partekatu eta finkatuko dira. Hainbat ikerketak erakutsi dute ikasleek lortutako emaitzetan duten eragina. Eragin hori indize Sozio-ekonomiko eta Kulturalarena (ISEKena) baino handiago izan daiteke.

Azkenik, hezkuntzako esku-hartzean, ikasleen ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobetzen lagunduko duten erabakiak hartzeko informazioa ematen duen tresna da. Ebaluazio Diagnostikoa etaparen erdian (DBHKO 2. Mailako ikastetxe guztietan) zein etaparen amaieran egin ohi da (DBHKO 4. Mailako 150 ikastetxeko lagin batean), lehena urte bakoitietan eta bigarrena urte bikoitietan. Horien kudeaketa hobetze aldera, aurrerantzean, lehiaketa publiko bakarrean esleituko dira ebaluazio biak, alegia, 2020ko etaparen amaierakoa eta 2021eko etapa erdikoa, horretarako dagozkion konpromisu kredituak aurreikusiko direlarik.

Ekainaren 28ko 4/2018 Legeak berritasun bat dakar: Lanbide Heziketako eredu konbinatua. Eredu horrek, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legean zehaztutako Lanbide Heziketa integratua ez ezik, berrikuntza aplikatuko ikaskuntzak eta ekintzailatza aktiboa ere barne hartzen ditu. Bi eremu horiek kualitatiboki eraldatu behar dituzte Lanbide Heziketak arlo ekonomikoan eta, batik bat, arlo produktiboan izango dituen ondorioak, betiere, helburu izanik pertsona aktiboak prestatzea, zeintzuen trebetasunen eta, bereziki, lanbide-helburuen zati izango baitira, batetik, berrikuntza (euren lanbide-eremukoa), eta, bestetik, ekimen-sena eta espiritu ekintzailea (dagokien sektore ekonomikoan).

Halaber, Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuan Espezializatutako Ikastetxeen Euskal Sarea sortu eta arautzen du, euskal produkzio-sareari jarri zaizkion erronkei erantzuna emateko. Horrek guztiak, batetik, prestakuntza aurreratu bat barne hartzen du, Lanbide Heziketan ikasten duten pertsonentzat kualifikazio eta espezializazio altuak lortzeko, eta, bestetik, berrikuntza aplikatu bat, bai teknologiararen arloan, enpresa txiki eta ertainei produktua, produkzio-prozesua eta zerbitzua hobetzen laguntzea lehenetsiz, bai metodologiararen arloan, ikasteko era eraldatzeko eta zeharkako konpetentziak hobeto eskuratzeko. Horrez gain, lanbide-heziketako zentroetan ekintzailatza-kultura sustatzearen eta enpresen sorrerari laguntzearen garrantzia ezartzen du legeak.

Era berean, lanbide-heziketa dual txandakatua ezartzen du, pertsonen enplegarritasuna eta enpresen lehiakortasuna indartuko dituen lanbide-heziketako eredia bultzatzeko oinarritzko helburu estrategiko gisa.

La familia constituye en esta etapa la base para la educación en valores que han de ser compartidos y afianzados con el centro escolar. En este sentido, diferentes investigaciones han demostrado su incidencia en los resultados que obtiene el alumnado. Esta incidencia puede incluso superar la del Índice Socio-económico y Cultural (ISEC).

Finalmente, en la intervención educativa, la evaluación del alumnado es una herramienta que proporciona información para la toma de decisiones que redunde en la mejora de los procesos de enseñanza-aprendizaje. La Evaluación de Diagnóstico se realiza en mitad de etapa (en todos los centros educativos de 2. de ESO) y en final de etapa (en una muestra de 150 centros de 4^a de ESO), la primera en los años impares y la segunda en los años pares. Con vistas a mejorar la gestión de las mismas, en adelante, se procederá a licitar ambas evaluaciones de forma conjunta de forma la siguiente licitación incluirá la evaluación de final de etapa de 2020 y la de mitad de etapa de 2021 para lo que se arbitrarán los créditos de compromiso necesarios.

La Ley 4/2018 de 28 de junio introduce de forma novedosa en la formación profesional un modelo combinado de FP, en el que se integran no solamente el ámbito de la formación profesional integrada definida en la Ley 1/2013 de 10 de octubre, de Aprendizaje a lo Largo de la Vida, sino, igualmente, los aprendizajes en innovación aplicada y emprendimiento activo. Se trata de dos ámbitos que deben transformar cualitativamente los efectos de la formación profesional en el ámbito económico y, especialmente, productivo, en la medida en que tendrá como objetivo la formación de personas activas, para las que la innovación en el ámbito de su profesión, así como el sentido de la iniciativa y el espíritu de emprendimiento en su sector económico, sean parte integrante de sus habilidades y, sobre todo, de sus objetivos profesionales.

Asimismo, crea y regula una Red Vasca de Centros Especializados en el Modelo Combinado de Formación Profesional, que darán respuesta a los retos que se han planteado en el tejido productivo vasco. Todo ello incluye una formación avanzada, para conseguir una alta cualificación y especialización en las personas que cursan la FP, una innovación aplicada, tanto en el ámbito tecnológico, priorizando el apoyo a las pymes en mejora de producto, proceso productivo y servicio, como en el ámbito metodológico, que transforme la manera de aprender y mejore la adquisición de competencias transversales. También la Ley establece la importancia de impulsar la cultura emprendedora y el apoyo a la creación de empresas en los centros de formación profesional.

De la misma manera, establece la formación profesional dual en régimen de alternancia como un objetivo estratégico fundamental para el impulso de un modelo de formación profesional que refuerce la empleabilidad de las personas y mejore la competitividad de las empresas.

Legeak, halaber, Lanbide Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Esparrua arautzen du, lanbide-heziketako sistema orokorraren bidez gure lan-merkatuari erantzun ahal izateko Esparru horretan sartuko dira EAeko lanbide-espezializazioko programen ziurtagiriak eta egiaztagiriak.

Lanbide Heziketako Euskal Sistema nazioartekotzea da lege horrek garrantzi handiagoa eman nahi dion beste ardatz bat. Nazioartekotze-prozesua hiru esku-hartze motaren gainean eraikita dago. Lehenik, irakasle eta ikasleen truke-programak gauzatzen dira, bi norabideetan: irakasle eta ikasleek beste herrialde batzuetako herrialdeetan parte hartzen dute, eta EAeko ikastetxeek beste herrialde batzuetakoak hartzen dituzte. Bigarrenik, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren prestakuntza-jarduerak eskaintzen dira beste herrialde batzuetan, eta hori oso garrantzitsua da EAetik kanpora lantokiak dituzten euskal enpresentzat. Eta, hirugarrenik, Lanbide Heziketako Euskal Sistemak esperientziak esportatu behar ditu beste herrialde batzuetara, bere Lanbide Heziketako sistemak beste herrialde batzuetan diseinatu eta ezartzearen bidez, EAeko ezagutzak eta esperientziak zabaldu ahal izateko.

EAeko Lanbide Heziketan, hizkuntzen auziak erronka bikoitz bat dakar. Batetik, EAeko hizkuntza ofizialek Lanbide Heziketan izango duten presentzia Lanbide Heziketako Sistemara egokitu beharra dago, eta konpondu egin behar dira urte hauetan guztietan nabarmendu diren arazoak. Euskarak Lanbide Heziketako Sistemaren duen presentzia normalizatua dela bermatu behar da; hartara, hizkuntzaren arloko xedapen orokorrak aplikatuko dira, eta bermatu egingo da bi hizkuntza ofizialak behar bezala menderatzen dituztela prestakuntza-jarduerak egiten dituztenek (bereziki, Hasierako Lanbide Heziketan). Era berean, hizkuntza-eredu bat edo bestea ezarriko da Lanbide Heziketaren eta enpresa-munduaren berezitasunak eta eskakizunak kontuan hartuta. Ildo horretatik, lege honek euskara eta gaztelaniaren eredu elebidunaren alde egiten du.

Bestetik, Lanbide Heziketak aurre egin behar dio atzerriko hizkuntzen ezagutza lan-mundura zabaltzeko erronkari. Ildo horretatik, ezinbestekoa da ingelesaren ezagutza oro har zabaltzea; baina zenbait eremutan edo zenbait kasutan, ezinbestekoa da beste hizkuntza batzuk ere ikastea (bereziki, etengabeko Lanbide Heziketaren eremuan).

Lanbide Heziketako Sistema modu eraginkorrean garatzea bermatu behar da, etengabeko hobekuntzarako prozesu baten bitartez; bada, horretarako garrantzitsuak diren bi gai dakartza, azkenik, legeak. Batetik, legeak ezartzen du beharrezkoa dela lanbide-heziketaren arloko ikerketa bultzatzea; eta, bestetik, lanbide-heziketako sistema osoan berrikuntza-prozesuak bultzatzea.

Esta Ley regula, igualmente, un Marco Vasco de Cualificaciones y Especializaciones Profesionales, con objeto de dar respuesta a nuestro mercado de trabajo a través del sistema general de formación profesional. En el mismo se incluirán las certificaciones y acreditaciones propias de los programas de especialización profesional del País Vasco.

La internacionalización del sistema vasco de formación profesional es otro de los ejes sobre los que trata de incidir esta Ley de forma más trascendental. Ese proceso de internacionalización se asienta sobre tres tipos diferenciados de intervención. Por una parte, los programas de intercambio de profesorado y de estudiantes en las dos direcciones: participación de profesorado y estudiantes en centros de otros países y la recepción de personas de otros países en los centros del País Vasco. En segundo lugar, la oferta de actividades formativas del sistema vasco de formación profesional en otros países, de especial importancia en el caso de empresas vascas con centros de trabajo en el exterior. Y, en tercer lugar, lo que se podría denominar la exportación de experiencias del sistema vasco de formación profesional a otros países a través del diseño e implantación de sus sistemas de formación profesional, aportando el conocimiento y experiencia existente en el País Vasco.

La cuestión de las lenguas en la formación profesional plantea un doble reto en el País Vasco. Por una parte, la necesidad de adecuar la presencia de las lenguas oficiales del País Vasco en el sistema de formación profesional, corrigiendo los problemas que se han puesto de relieve durante estos años. Se trata de garantizar la presencia normalizada de la lengua vasca en el sistema de formación profesional, dando así aplicación a las disposiciones generales en materia lingüística, de forma que se garantice un dominio adecuado de ambas lenguas oficiales por parte de quienes realicen las actividades formativas, especialmente en la formación inicial, así como adecuar la implantación de los modelos lingüísticos a las peculiaridades y exigencias de la formación profesional y del mundo de la empresa. En este sentido, esta Ley opta por extender la implantación del modelo bilingüe de euskera y castellano.

En segundo lugar, la formación profesional se debe enfrentar al reto de la extensión del conocimiento de lenguas extranjeras en el mundo profesional. En este sentido, resulta imperiosa la extensión del conocimiento del inglés, con carácter general; pero también, en algunos ámbitos o en algunos supuestos, el aprendizaje de otras lenguas, especialmente, en el ámbito de la formación continua.

La Ley incluye, finalmente, dos cuestiones de gran importancia para garantizar un desarrollo eficiente del sistema de formación profesional tratando de mantener un proceso de innovación continua. Por un lado, la ley establece la necesidad de impulsar el desarrollo de la investigación en la formación profesional y, por otro, el desarrollo de procesos de innovación en el conjunto del sistema de formación profesional.

Gainera, Lanbide Heziketaren V. Euskal Planaren helburua da erantzuna ematea laugarren industria-iraultzak dakartzan erronkei, eta horretarako, zera egingo da: garapen jasangarrirantz aurrea egin; giza talentua sustatu, produkzio-inguru berri bateko erronkei aurre egiteko konpetentziak eta kualifikazioak sartzearen bidez; Lanbide Heziketa 4.0 industrian, digitalizazioan, konektagarritasunean, garapen jasangarrian, ezagutzaren kudeaketan eta 4.0 balioetan oinarritzen dela ziurtatu, gure gizartearen eraldaketa ekonomiko, zientifiko eta kulturaleri eta lanari dagozkion eraldaketei ondo erantzuteko.

Zeregin hori betetzeko, pertsonen gaikuntzan eta Euskadiren lehiakortasunean positiboki laguntzera begira, Lanbide Heziketako V. Euskal Planak, bere helburu eta jarduketaraino guztiak epe ertainean (2018-2021) martxan jartzea aurreikusten du. Gainera, plan hori honako printzipio hauetan oinarritzen da: etorkizunari buruz ikastea, 4. industria-iraultzaren erronkak, ziurgabetasun- eta zailtasun-testuinguru berriak, elkarlaneko ikaskuntza eta Lanbide Heziketako zentroak Errendimendu Altuko zentroetan bilakatzera

Gaur egun, teknologia digitalak ekoizpen-prozesuetan, produktueta eta zerbitzuetan sartzen ari direla ikusten da. Sartze horrek lanbide-heziketari ere eragiten dio. Konektibitateak eta digitalizazioak, datuen kulturak eta ustiapenak, datuen beharrezko babesak, adimen artifizialak, robotika kolaboratiboak, sistema adimendunek eta espazio birtual, interaktibo eta murgilduek LH sistemaren eraldaketa digitalerako plan bat diseinatu, garatu eta inplementatzera behartzen gaituzte, jasangarritasun-irizpide objektiboetan oinarrituta.

2020-2021 ikasturtean, 4.0 errendimendu handiko lanbide-heziketako ikastetxeek hainbat ekintza eta neurri ezarri eta garatuko dituzte eraldaketa digital hori beren gain hartzeko.

Testuinguru horretan, produkzioan oinarrituta dago Euskadiren ekonomia eta bertan, garrantzi berezia hartzen dute ekoizpen-prozesu tradizionalak aldatzen dituzten teknologien eta materialen berrikuntzak eta agerpenak.

Lanbide Heziketako V. Euskal Planaren garapenak berrikuntza aplikatua bultzatzen jarraituko du Sare Nodoen bidez Lanbide Heziketan, Ingurune Estrategikoetan, Espezializazio Arloetan eta Ikastetxeen Proiektuetan, hainbat produkzio-sektoretara bideratuz. Plan horrek berrikuntza aplikatuaren arloko gaitasun bereizgarri espezifikoetan pertsonak gaitzeko baliabideak esleituko ditu, laugarren industria-iraultzak eragindako produkzio-testuinguru berrian beharrezkoak direnak. Horretan guztian, lehenasuna emango zaio lanbide-heziketako ikastetxeek ETEekin, mikroETEekin eta autonomoekin duten lankidetzari.

Además, el V Plan Vasco de Formación Profesional pretende dar respuesta a los retos que plantea la cuarta revolución industrial, avanzando hacia un desarrollo sostenible, impulsando el talento humano a través de la incorporación de competencias y cualificaciones que hagan frente a los retos derivados de un nuevo entorno productivo, asegurando la consolidación de la Formación Profesional sobre la base de la industria 4.0, la digitalización, la conectividad, el desarrollo sostenible, la gestión del conocimiento y los valores 4.0, para responder con éxito a las transformaciones laborales, económicas, científicas y culturales de nuestra sociedad.

Para el cumplimiento de esta misión, el V Plan Vasco de Formación Profesional se plantea un horizonte para la puesta en marcha de todos sus objetivos y líneas de actuación, de medio plazo 2018 – 2021, en aras de contribuir positivamente a la capacitación de las personas y a la competitividad de Euskadi. Además, este plan se asienta en los siguientes principios: aprender sobre el futuro, los retos de la 4ª revolución industrial, los nuevos contextos de incertidumbre y complejidad, el aprendizaje colaborativo y transformar los centros de formación profesional en centros de alto rendimiento 4.0.

En la actualidad se observa una clara irrupción de las tecnologías digitales en los procesos productivos, los productos y los servicios. Esta irrupción, afecta también a la formación profesional. La conectividad y la digitalización, la cultura de los datos y su explotación, la protección necesaria de los mismos, la inteligencia artificial, la robótica colaborativa, los sistemas inteligentes, así como los espacios virtuales, interactivos e inmersivos, nos obligan a diseñar, desarrollar e implementar un plan de transformación digital del sistema de FP en su conjunto, en base a criterios objetivos de sostenibilidad.

A lo largo el curso 2020-2021, los centros de formación profesional de alto rendimiento 4.0, irán implantando y desarrollando diferentes acciones y medidas que les permita asumir dicha transformación digital.

En este contexto, en una economía como la de Euskadi basada en la producción, cobra especial importancia la innovación y la irrupción de las tecnologías y los materiales que modifican los procesos productivos tradicionales.

El desarrollo del V Plan Vasco de formación profesional seguirá impulsando la innovación aplicada a través de Nodos de Red en la Formación profesional, Entornos Estratégicos, Áreas de Especialización y Proyectos de centros encaminándola hacia diferentes sectores productivos. Este Plan asignará los recursos hacia la capacitación de personas en competencias diferenciales específicas en el campo de la innovación aplicada necesarias en el nuevo contexto productivo provocado por la cuarta revolución industrial. En todo ello se priorizará la colaboración de los centros de formación profesional con las Pymes, microPymes y autónomos.

Azken urteotan, Europar Batasunak ahalegin handia egin du herrialde kideetako ekonomiak garapen jasangarriko eredu baterantz bideratzeko, baliabideen aprobetxamendu eraginkorrean oinarrituta. Arlo horretako apustu garrantzitsuenak Ekonomia Zirkularren kontzeptuaren ingurukoak dira. Horren helburua da materialen, produktuen eta baliabideen balioa ahalik eta denbora gehien mantentzea ekonomian, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murriztuz.

Testuinguru horretan, Euskadik Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen, giza hazkunde jasangarriaren aldeko apustua, non gizartea, ingurumena, kultura eta ekonomia elkarrekin lotuta dauden. Lotura hori eta haren oreka funtsezkoak dira gizartearen aurrerabidea eta bizikaltate hobea bilatzeko.

Gaur egun, lanbide-heziketaren euskal curriculumak aukerak eskaintzen ditu jasangarritasunerako gaituntza garatzeko. Aukera horiek prestakuntza-zentroetan agertzen dira, ikasleen gaitasunen garapenaren ikuspegitik. Ikuspegi horri esker, problematikak kritikoki azter daitezke eta aukera eta irtenbide sortzaileak sor daitezke.

Funtsezkoa da garapen jasangarriko helburuak lortzera bideratutako ezagutza berriak sartzea etorkizuneko erronkak eraldatzeko eta onartzeko gaitasuna izango duen trebakuntza sustatzeko.

Etorkizunari begira, lanbide-heziketako ikastetxeek eredu propioa diseinatu eta ezarri behar dute, etorkizuneko profesionalen trebakuntzan jasangarritasuna ezartzen lagunduko duten tresnak sortuz. Eredu hori sektore ekonomikoetarantz eta lanbide-heziketako programetarantz hedatu behar da, zeharkako konpetentziak eskuratzea bermatuz, ingurune sozial eta ekonomiko iraunkorren oinarri gisa. Ildo horretan, beharrezkoa da lanbide-heziketak garapen jasangarri horri erantzungo dioten hainbat ekintza areagotzea. Horretarako, ehungintzan ikerketa- eta berrikuntza aplikatutako laborategi bat jarriko da martxan. Laborategi horrek, besteak beste, osasun-babeseko ehun-materialak ziurtatzeko akreditazioa izan beharko du.

V. Plan honek, 9. eremu estrategikoan, egitura organiko espezializatuak ezartzen ditu, Lanbide Heziketako Sailburuordetzari laguntza emango diotenak, eboluzionatzen jarraitu ahal izateko eta plana abian jartzeko prozesua behar bezala burutzeko, eta euskal lanbide-heziketa, berrikuntza eta eraldaketa indartzeko. Gure antolaketa-sisteman egitura berriak ezarri behar dira, orainak eta geroak planteatzen dituzten erronka sozial, ekonomiko eta teknologikoei erantzuteko.

Plan horren esparruan, beraz, lanbide-heziketa gidatzen duten egitura espezializatuak sortzeko eta berregituratzeko beharra planteatzen da, proposatutako helburuak lortzeko tresna gisa.

En los últimos años, la Unión Europea se ha esforzado por orientar las economías de los países miembros hacia un modelo de desarrollo sostenible, basado en el aprovechamiento eficaz de los recursos. Las apuestas más importantes en este ámbito giran en torno al concepto de Economía Circular, cuyo objetivo es que el valor de los materiales, productos y recursos se mantengan en la economía durante el mayor tiempo posible, reduciendo al mínimo la generación de residuos.

En este contexto, Euskadi aprobó la Agenda Euskadi Basque Country 2030, una apuesta por un crecimiento humano sostenible, donde la sociedad, el medio ambiente, la cultura y la economía, están interconectadas. Esta interconexión y su equilibrio son fundamentales en la búsqueda del progreso de la sociedad y de una mejor calidad de vida.

En la actualidad, el currículo vasco de la Formación Profesional ofrece oportunidades para el desarrollo de una capacitación para la sostenibilidad. Estas oportunidades, están presentes en los centros de formación desde un enfoque de desarrollo competencial del alumnado, que permite el análisis crítico de las problemáticas y la creación de alternativas y soluciones creativas.

La incorporación de nuevos conocimientos enfocados a la consecución de los objetivos de Desarrollo Sostenible, es esencial para potenciar una capacitación que le dé la posibilidad de transformar y asumir los retos de futuro.

De cara al futuro, los centros de FP deben adoptar el diseño e implementación de un modelo propio a través de la generación de herramientas que ayuden a implantar la sostenibilidad en la capacitación de futuros profesionales. Este modelo, debe extenderse hacia los distintos sectores económicos y programas de formación profesional, garantizando la adquisición de competencias transversales como la base de un entorno social y económico sostenibles. En esta línea se hace necesario que la formación profesional intensifique diferentes acciones que respondan a dicho desarrollo sostenible. Para ello se pondrá en marcha un laboratorio de investigación e innovación aplicadas en el ámbito textil, acreditado para certificar, entre otras cosas, materiales textiles de protección sanitaria.

Este V Plan establece en su ámbito estratégico 9, las estructuras orgánicas especializadas que darán apoyo a la Viceconsejería de Formación Profesional. Para poder seguir evolucionando y llevar a buen término la puesta en marcha del mismo y fortalecer la FP vasca, la innovación y la transformación, se deben adoptar en nuestro sistema organizativo nuevas estructuras que respondan a los desafíos sociales, económicos y tecnológicos que plantea el presente y el futuro.

En el marco de dicho Plan, se plantea por tanto la necesidad de crear y reconfigurar las estructuras especializadas que guían la formación profesional, como instrumentos a través de los cuales se alcanzan los objetivos propuestos.

Kasu honetan, jarduera-esparru berri honetan argi eta garbi protagonismoa izango duten hiru egitura eraldatuko dira.

Lehenik eta behin, Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Zentroa (TKNIKa) dugu, azken urteotan nazioartean garrantzi handia hartu duena bere lanaren garapenean.

Laugarren industria-iraultzaren ondorioz pertsonak prestatzeko premia berriak daudenez, eta euskal produkzio-sarearen lehiakortasuna mantendu eta hobetu behar denez, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketak erantzun arin eta eraginkorra eman behar du. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako sistemaren berrikuntza, aldaketa, eguneratzea eta hobekuntza garatzen duten tresnak eta erakundeak eguneratu eta optimizatu behar dira.

Aldaketa eta eraldaketa horiek direla eta, eguneratu egin behar dira Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroaren (TKNIKA) arloak, funtzionamendua, antolaketa eta eginkizunak; gainera, zentro horretan lan egiten duten profesionalen behar berri horietara hobeto egokitzen den profila behar da.

Horregatik, aipatutako aldaketei erantzuteko, TKNIKA Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa osatzen duten arloen egitura, izenak eta funtzioak aldatu eta zabaldu behar dira.

Bigarrenik, Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutua dago, Ezagutzaren Euskal Institutua eraldatzearen ondorioz sortua. Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutuak gure enpresen lehiakortasunaren etorkizunean eta pertsonen enplegarritasunean eragina izango duten joerak identifikatu eta aztertu beharko ditu, joera horiei erantzungo dieten prestakuntza motak eta beharrak ezarri. Horretarako, Euskadin abian jarritako "espezializazio adimenduneko estrategia" hartuko da erreferentziatzat.

Helburua da pertsonak prest izatea une bakoitzean gure produkzio-sarearen benetako beharrezanetarako. Horrek esan nahi du alde aurretik landu behar dela helburu hori lortzeko behar den prestakuntzaren diseinua. Era berean, prozedura bat ezarriko du, pertsonen unean uneko kualifikazioa lortzeko behar den prestakuntza ezagutu eta ezarri ahal izateko, etorkizuneko lehenetsun estrategikoetan oinarrituta.

Etorkizuneko Ikaskuntzen Euskal Institutuak gaitasun berriak ikertu eta diseinatuko ditu, eta prozedura bat ezarriko du talentuari buruzko gaitasunak aitortzeko, gero eta azkarragoak izango diren eta etorkizunean mundu konplexu baterako beharko diren aldaketen erritmoari heltzeko. Tutoretza-sistema berrien erabilera ikertuko du, ikasleak banaka eta taldean aurreratzen eta prestatzen lagunduko duten sistema adimendunen bidez, teknologia aurreratuen bidez, hala nola big data, errealtate areagotua eta adimen artifiziala.

En este presupuesto se abordan la transformación de tres estructuras que tendrán un protagonismo indudable en este nuevo marco de actuación.

En primer lugar, está el Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional (TKNIKA), que ha adquirido a lo largo de los últimos años una gran relevancia internacional en el desarrollo de su trabajo.

Las nuevas necesidades de preparación de las personas como consecuencia de la cuarta revolución industrial, así como la respuesta necesaria para mantener y mejorar la competitividad del tejido productivo vasco, hacen necesaria una respuesta ágil y eficaz desde la Formación Profesional del sistema Educativo. Para ello se deben actualizar y optimizar los instrumentos y organismos que desarrollan la innovación, el cambio, la actualización y la mejora del sistema de Formación Profesional en el País Vasco.

Estos cambios y transformaciones obligan a actualizar las áreas, el funcionamiento, la organización y las funciones del Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco, TKNIKA; requiriendo además un perfil más ajustado a estas nuevas necesidades de los y las profesionales que trabajan en el mismo.

Por ello, con la finalidad de poder responder a los cambios señalados se deben modificar y ampliar la estructura, las denominaciones y las funciones de las áreas que forman parte del Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la Formación Profesional del País Vasco, TKNIKA.

En segundo lugar, está el Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros, que se crea por transformación del Instituto Vasco del Conocimiento. El Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros deberá identificar y analizar las tendencias que van a influir en el futuro de la competitividad de nuestras empresas y en la empleabilidad de las personas, estableciendo los tipos y las necesidades de formación que den respuesta a dichas tendencias. Para ello, se tendrá como referencia la "Estrategia de especialización inteligente" puesta en marcha en el País Vasco.

El objetivo es tener a las personas preparadas para las necesidades reales de nuestro tejido productivo en cada momento. Eso supone trabajar con anticipación el diseño de la formación necesaria para alcanzar este objetivo. Asimismo, establecerá un procedimiento que nos permita conocer e implantar la formación necesaria, para alcanzar la cualificación requerida en cada momento de las personas, basándose en las prioridades estratégicas de futuro.

El Instituto Vasco de Aprendizajes Futuros investigará y diseñará nuevas competencias, además de establecer un procedimiento que permita reconocer las competencias referidas al talento, que den cobertura al ritmo de los cambios que cada vez serán más rápidos, y que se requerirán en el futuro para un mundo complejo. Investigará el uso de nuevos sistemas de tutoría apoyada a través de sistemas inteligentes que favorezcan el avance y la preparación del alumnado de forma individual y colectiva, a través de tecnologías avanzadas como el big data, la realidad aumentada y la inteligencia artificial.

Bere eginkizunen barruan, etorkizuneko ikaskuntza-profil berriak sortu beharko ditu etengabe, sortzen ari diren sektoreen eta gaur egun ezagutzen ez diren sektoreen beharretan oinarrituta, eta, horretarako, euskal produkzio-sareko enpresa aurreratuenekin lan egin eta lankidetzan jardun beharko du.

Hirugarrenik, Talentuaren Euskal Institutua dago. Lanbide-heziketaren lehentasunezko helburuetako bat giza garapen jasangarri baterantz aurrera egitea da. Horrek esan nahi du aurrera egin behar dela prestakuntza hori jasotzen duten pertsonen prestakuntza eraldatuz eta areagotuz, enplegarritasun konplexuagoaren eskakizunetara eta datozen urteetan eratzen joango diren lan berrietara egokitu ahal izateko. Lan-arrakasta pertsonen profilaren eta pertsonok une bakoitzean egokitzeko duten gaitasunaren arabera izango da.

Horretarako, beharrezkoa izango da ikaskuntza-konzeptuetan eboluzionatzea; hau da, konpetentzian oinarritutako prestakuntza talentuan oinarritutako prestakuntza bilakatzea. Ikaskuntzaz bestelako eremu batean sartzen gaitu talentuaren kontzeptuak. Eremu horretara bildu dira, besteak beste, pentsamendu eraikitzaile eta sortzaileari, adimen sortzaile eta betearazleei eta pertsonen balioei buruzko testuinguruak.

Testuinguru horretan, Talentuaren Euskal Institutuak, zeina Lanbide Heziketako Sormen Aplikatuko Euskal Institutua eraldatzearen ondorioz sortu baita, beharrezko ikaskuntza-metodologiak ezarri beharko ditu, pertsonak ezagutza teknikoetan, baliabideetan, xedean eta lanaren antolamenduan izango diren aldaketei aurre egin ahal izateko. Era berean, langileek gero eta konplexuagoak diren lan-testuinguruetan parte-hartze aktiboa eta gogoetatsua izateko aukera eman beharko du, horietan sartuko baitira on-line eta off-line jarduerak. Gainera, ikuspegi eta begirada berrietatik, zeharkako gaitasun desberdinak garatzea ahalbidetu behar du, hala nola diziiplina anitzeko taldeetan lan egitea, aldaketara azkar egokitzea eta arazo konplexuak konpontzea. Era berean, ziurgabetasun-testuinguruetan egoera berriei aurre egiteko sormena ere bultzatuko du, eta ekintzailatza sustatuko du.

Garapenerako, Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legetik zein Lanbide Heziketako V. Euskal Planetik, jarraian azaltzen diren helburuekin loturiko jarduerak gauzatuko dira:

- Lanbide Heziketako prestakuntza eskaintzarako sarbidea erraztea eta ikasleei bere lanbidean jarduteko lanbide gaitasun egokia lor dezaten ahalbideratzea, ikastetxeetan nahiz lantokietan.
- Lanbide Heziketa prestakuntza ematen duten Ikastetxeetan lanaren alternantziatzako programaren inplementazioa indartzea.
- Lanbide Heziketako sare publikoaren eta sare kontzertatuaren ohiko funtzionamendua bermatzea, baita koordinazio eta laguntzarako erakundeena ere.

